ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko azaroaren 20a, ostirala • 134 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KRIPANGO UDALA

Kripango Egonaldi Turistikoen gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala behin betiko onezpena

Ohiko osoko bilkuran, 2026ko irailaren 28ko ohiko bilkuran, erabaki hau hartu zen:

Kripango egonaldi turistikoen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren hasierako onarpena eta ezarpena. Kontuan hartu behar da espediente hori jendaurrean ikusgai egon zen aldian ez zela haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu.

Erabaki hori behin betiko bihurtu da, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Dekretu Arauemailearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hona hemen haren testua, hitzez hitz:

Erabaki honen aurka, interesatuek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Gustiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan ematen da argitara hau.

Kripanen, 2026ko azaroaren 10ean

Alkatea
JOSEBA FERNANDEZ CALLEJA

KRIPANGO EGONALDI TURISTIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Araudi aplikagarria

Udal honek, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 foru dekretu arauemailearen 22.1.d) artikuluan eta Egonaldi Turistikoen gaineko Zerga sortu eta arautzen duen ekainaren 10eko 13/2026 Foru Arauan jasotakoarekin bat etorriz, tasak ezartzen eta eskatzen ditu ordenantza honen bidez eskatzen du zerga hori.

2. artikulua. Lurralde eremua

Ordenantza hau Kripan udalerri osoan aplikatzen da.

II. TITULUA: ZERGA EGITATEA ETA SALBUESPENAK

3. artikulua. Zerga egitatea

1. Zergadunek turismo ostatuko establezimendu hauetan egiten duten egonaldia da zergaren zergapeko egitatea, egunka edo zatika, gaua bertan eman zein ez:

a) Turismoko establezimenduak, kategoria hauen arabera:

1) Hotel establezimenduak.

2) Ostatu etxeak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

3) Apartamentu turistikoak.

4) Kanpinak eta kanpatzeko beste modalitate batzuk.

5) Agroturismoak.

6) Landetxeak.

7) Aterpetxeak.

8) Beste ostatu establezimendu turistiko batzuk.

b) Erabilera turistikoko etxebizitzak, honako modalitate hauen arabera:

1) Osorik lagatakoak.

2) Gelaka lagatakoak.

4. artikulua. Salbuespenak

Zergaren kargatik salbuetsita daude:

a) Europar Batasuneko estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioari atxikitako estatuetako administrazio publikoek helburu turistikoekin antolatzen dituzten programa sozialen dirulaguntza jasotzen duten egonaldiak. Entitate sustatzailearen erreserba egiaztagiria edo faktura behar da.

Salbuespen hori aplikatu ahal izateko, erreserbaren egiaztagiria aurkeztu beharko da, edo programa soziala sustatzen duen erakundearen faktura, eta agiri horretan programa identifikatu beharko da, bai eta egonaldia finantzatzen duen administrazio publikoa ere, eta programaren onuradunen zerrenda agertu beharko da.

b) Hemezortzi urtetik beherako pertsonen egonaldiak. Salbuespen hori aplikatu ahal izateko, adingabearen nor den eta zenbat urte dauzkan frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira (nortasun agiria, pasaportea, familia liburua edo antzeko besteren bat); frogagiririk eduki ezean, guraso, tutore edo adin nagusiko laguntzaile baten erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

c) Ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa edo II. edo III. graduko mendekotasuna dutela egiaztatzen duten pertsonen egonaldiak, bai eta haiekin batera doazen pertsonenak ere; gehienez ere laguntzaile bat egongo da desgaitasuna edo mendekotasuna duen pertsona bakoitzeko.

Salbuespen hori aplikatzeko, salbuespenaren egitatezko kasua gertatzen dela egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira, eta zergadunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, dela desgaitu gisa, dela mendeko pertsona gisa, dela laguntzaile gisa.

Erantzukizunpeko adierazpenean desgaitasuna edo mendekotasuna duen pertsonaren identifikazio datuak agertu behar dira, eta, hala badagokio, laguntzailearenak ere bai. Salbuespena zenbait pertsonari aplikatu nahi izanez gero, erantzukizunpeko adierazpena batera aurkeztu dezakete. Halakoetan, zergadun guztien datuak adierazi behar dira. Kasu horretan, nahikoa izango da haietako baten sinadura, adinez nagusia bada.

d) Ostatu establezimendu turistikoetan egiten diren egonaldiak hezkuntza sistemako maila eta gradu guztietako ikasketak egiteko (unibertsitateko hirugarren ziklora arte), ikerketa akademikoak egiteko edo Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko batek antolatutako talentu programa batean aritzeko.

Salbuespen hori aplikatu ahal izateko, salbuespena aplikatzeko kasua gertatzen dela egiaztatu beharko da.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

e) Osasun arrazoiengatik egindako egonaldiak, bai eta egonaldia egin behar duen pertsonarekin doazen pertsonenak ere; gehienez ere laguntzaile bat tratamendua behar duen pertsona bakoitzeko.

Salbuespen hori aplikatu ahal izateko, zergadunak osasun zentroaren ziurtagiria edo txosten medikoa aurkeztu beharko du, adierazten duena jasotako osasun arreta Osakidetzaren zerbitzuen zerrendan dagoela, eta, horretaz gainera, pazienteak eta laguntzaileak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute.

Erantzukizunpeko adierazpenean pazientearen identifikazio datuak agertu behar dira, eta, hala badagokio, laguntzailearenak ere bai. Salbuespena zenbait pertsonari aplikatu nahi izanez gero, erantzukizunpeko adierazpena batera aurkeztu dezakete. Halakoetan, zergadun guztien datuak adierazi behar dira, eta nahikoa da adin nagusikoa den zergadunetako batek sinatzea.

f) Ezinbesteko arrazoiengatiko egonaldiak.

Horren ondorioetarako, ezinbesteko arrazoiak dira: aurreikusi gabeko zein aurreikusitako gertaera saihestezinak, hondamendi naturalekin, larrialdi egoerekin edo pertsonentzat aparteko arriskua dakarten indarkeria ekintzekin lotuta daudenak, eragiten dutenak pertsonek turismo establezimendua premiaz eta behin-behinean okupatu beharra, edo larrialdien edo segurtasun publikoaren arloko neurri publikoren bat aktibatzea dakartenak.

Era berean, eta salbuespen horren ondorioetarako soilik, ezinbesteko arrazoien ondoriozko egonalditzat hartuko dira zergadunek bizi diren udalerrian bertan egin beharrekoak, etxebizitza erabiltzeko ezintasun fisikoa dakarten ezohiko egoera objektiboak gertatzearen ondorioz, hala nola etxebizitzan bizitzea eragozten duten obrak edo etxebizitzan gertatutako ezbeharrak eta antzeko egoerak.

Salbuespen hori aplikatu ahal izateko, zergadunak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du (zergadun bat baino gehiago izanez gero, adierazpena batera aurkeztu ahal izango dute), eta bertan zer gertatu den edo harekin lotuta zer neurri publiko aktibatu den azaldu beharko du, segurtasun publikoaren edo larrialdien arloan eskumena daukan administrazio publikoak emandako dokumentu baten bidez, salbu eta udalak ezinbesteko egoeraren arrazoien berri badu lege adierazpen baten ondorioz edo egoera nabarmena delako. Dokumentu horretan, gainera, zergadunen identifikazio datuak eta adin nagusikoa den haietako baten sinadura agertu beharko da.

Erantzukizunpeko adierazpenean, zergadunen identifikazio datuak eta adin nagusikoa den horietako edozeinen sinadura jasoko dira.

III. TITULUA: EREMU SUBJEKTIBOA

5. artikulua. Subjektu pasiboak

1. Zergaren subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, foru arau honen 3. artikuluan aipatzen diren ostatu establezimendu turistikoetako batean egonaldia egiten duten pertsona fisikoak.

2. Hauek izango dira zergadunaren ordezkoak:

Pertsona fisikoa edo juridikoa, bai eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan aipatzen diren erakundeak ere, ordenantza honen 3. artikuluan jasotako turismo ostatuko edozein establezimenduren ustiapenaren titularrak badira.

3. Zergadunaren ordezkoak ordenantza honetan ezarritako betebehar materialak eta formalak bete beharko ditu, bai eta ordenantza garatzeko ordenantza kudeatzeko eta aplikatzeko hartzen diren erabakiak eta xedapenak ere.

4. Kontrako frogarik ezean, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikuluaren 3. apartatuan aipatzen den pertsona fisiko edo juridikoa edo erakundea dela bere ustiategiaren titularra, baldin eta Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatuta badago ostatu establezimendu turistikoari dagokion turismo jardueraren titular gisa.

6. artikulua. Erantzule solidarioak

Erantzukizun solidarioa izango dute egonaldiak zuzenean kontratatzen dituzten edo bitartekari gisa jarduten duten pertsona fisiko edo juridikoek, erreserba formalizatzen edo kobratzen parte hartzen dutenean.

IV. TITULUA: ZERGA OINARRIA, KUOTA ETA SORTZAPENA

7. artikulua. Zerga oinarria

1. Zergaren zerga oinarria zergadunak turismo ostatuko establezimendu berean egindako egonaldi jarraituaren aldi bakoitzari dagozkion egonaldi unitate kopuruaren arabera zehazten da, bertan gaua eman den ala ez kontuan hartu gabe.

Ondorio horietarako, egonaldi jarraitu horrek dakarren egun bakoitza edo egun-zati bakoitza hartuko da egonaldi unitatetzat.

Etengabeko egonalditzat hartuko da pertsona bat aldi batez etengabe ostatu establezimendu turistiko batean egotea, zenbat erreserba, kontratu edo onarpen agiri dauden kontuan hartu gabe.

Lan arrazoiengatik behin eta berriz egiten diren egonaldiei dagokienez, lanegunak ez diren egunei dagozkien aldi baterako absentziek ez dute egonaldi jarraitua etengo, betiere zergadunak establezimendu berean ostatu hartzen jarraitzen badu.

2. Egonaldiko egunen edo zatikien kopurua ostatu establezimendu turistikoek sartzeko eta irteteko ordutegiei buruz ezarritako arauak edo usadioak aplikatuta kalkulatuko da.

3. Hogeita lau ordutik beherako egonaldiak egonaldi unitate bateko egonalditzat hartuko dira.

4. Zerga oinarria zuzeneko zenbatespenaren metodoaren bidez zehaztuko da. Horretarako, aurkeztutako aitorpenak edo dokumentuak, administratiboki egiaztatutako liburu eta erregistroetan jasotako datuak eta zerga betebeharraren elementuekin lotutako gainerako dokumentu, egiaztagiri eta datuak erabiliko dira.

8. artikulua. Karga tasak

1. Aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga oinarriari karga tasa hauek aplikatuko zaizkio, eurotan adierazita egonaldi unitate bakoitzeko, turismo ostatuko establezimendu motaren arabera:

OSTATU ESTABLEZIMENDU TURISTIKOAREN SAILKAPENAKARGA TASA	**(EURO/EGONALDI UNITATEA)**
a) Turismo establezimenduak:	
5 izarreko edo kategoria baliokideko hotel establezimenduak	4,50
4 izarreko edo kategoria baliokideko hotel establezimenduak	3,50
3 izarreko edo kategoria baliokideko hotel establezimenduak	1,50
2 izarreko edo kategoria baliokideko hotel establezimenduak	1,00
Izar bateko edo kategoria baliokideko hotel establezimenduak	0,75
Ostatu etxeak	0,75
Apartamentu turistikoak	1,50
Kanpinak edo kanpatzeko beste modalitate batzuk	0,75
Agroturismoak	0,50
Landetxeak	0,75
Aterpetxeak	0,75
Beste ostatu establezimendu turistiko batzuk	1,50
b) Turismo erabilerako etxebizitzak:	
Osorik lagatako turismo erabilerako etxebizitzak	4,50
Turismo erabilerako etxebizitza partikularrak, logelaka lagatzen direnak	4,50

2. Nolanahi ere, gehienez 6 egonaldi unitate zenbatuko dira zergadun eta egonaldi jarraitu bakoitzeko.

9. artikulua. Hobariak eta errekarguak

Zerga kuota kalkulatzeko, etengabeko egonaldi bakoitzeko egonaldi unitateen kopurua bidezko karga tasaz biderkatu behar da. Aplikatu beharreko karga tasa egonaldia egiten den ostatu establezimendu turistikoaren sailkapenaren araberakoa izango da, aurreko artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz.

10. artikulua. Sortzapena eta galdagarritasuna

1. Ostatu establezimendu turistiko batean egiten den egonaldi turistiko bakoitza hasten denean sortuko da zerga, eta establezimendu berean etengabe egiten den egonaldiko unitateko bakoitzeko eskatuko da.

2. Ostatu establezimendu turistikoaren titularrak ostatu plaza bat zergadun baten esku jartzen duenean hasiko da egonaldi turistikoa.

3. Egonaldia amaitu aurretik, zergadunaren ordezkoak noiznahi eskatu beharko dio zerga zergadunari.

Horretarako, zergadunak eskatu beharreko zerga kuota zehazteko behar den informazioa emango dio ordezkoari, eta, hala badagokio, aplikatu beharreko salbuespenetarako eskubidea ematen duten inguruabarrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak emango dizkio.

Nolanahi ere, zergadunak bidezko zenbatekoa ordaindu beharko dio ordezkoari, eta zenbateko hori ezin izango dio jasanarazi beste pertsona edo erakunde bati.

V. IZENBURUA: ZERGAREN KUDEAKETA

11. artikulua. Autolikidazioa eta zerga zorraren diru sarrera

1. Zergadunaren ordezkoak modu telematikoan aurkeztu eta sinatu behar du zergaren autolikidazioa, eta zerga zorra ordaindu behar du, emango den eredu ofizialaren arabera. Eredu horretan, zerga harremanaren elementuak eta udalak likidazioa egiteko beharrezkoak eta ezinbestekoak diren gainerako datuak jasoko dira.

2. Turismo establezimendu bat baino gehiago ustiatzen dituen zergadunaren ordezkoak ustiatutako turismo ostatuko establezimendu bakoitzari dagozkion zergaren kuoten ordainketa agregatua eta autolikidazio bakarrean egin dezake.

3. Likidazio aldia hiru hilekoa izango da, urte naturala zatitzen den hiruhileko bakoitzaren arabera, eta zergadunaren ordezkoak dagozkion hiruhileko autolikidazioak aurkeztu beharko ditu, hiruhileko likidazio aldia amaitu eta hurrengo hilaren 25 egun naturaletan, ematen den eredu ofizialaren arabera.

12. artikulua. Ostatu establezimendu turistikoen identifikazioa

Ostatu establezimendu turistikoak zerga honen inguruko jarduketetan identifikatu behar dira, eta horretarako ematen zaien identifikazio kodea erabili beharko da, hain zuzen ere establezimenduak Euskadiko turismo enpresen eta jardueren erregistroan (ETEE) duen identifikazioaren araberakoa.

13. artikulua. Informazio betebeharrak

Zergadunaren ordezkoak udal honen eskura jarri beharko du, hark hala eskatuz gero, zerga kudeatu, likidatu, bildu eta ikuskatzeko ondorioetarako soilik, udalerri honetako turismo establezimenduetan zerga ahalen preskripzio eta iraungitze epeetan izandako egonaldiei buruzko informazioa.

Hain zuzen, honako datu hauek eman beharko dituzte: ostatu hartu duten pertsonen kopurua, sarrera eta irteera datak eta, hala badagokio, salbuespena aplikatzea eragiten duen egoera. Gainera, turismoaren eta segurtasunaren arloko araudian identifikazioaz ezartzen dena bete beharko dute.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Udalak ordenantza honen 12. artikuluan ezarritako epeetan aitortu ez diren zerga egitateak egin direla jakiten duenean, zergadunaren ordezkoari dagokion autolikidazioa aurkez dezan errekerimendua egin ahal izango dio, horrek eragotzi gabe egon daitezkeen zerga arloko arau hausteak eta, hala badagokio, bidezko zehapenak.

Nolanahi ere, udalak ofizioz instruitu ahal izango du espedientea, bere esku dauden datuekin, eta dagokion behin-behineko likidazioa, likidazio osagarria edo behin betikoa egingo du, ordaintzeko epeak eta dagozkion errekurtsoak adierazita, hargatik eragotzi gabe tributuen arloan egindako arau hausteak eta aplikatu beharreko zehapenak.

Datu pertsonalak datu pertsonalen babesari buruzko indarreko araudian ezartzen denaren arabera tratatuko dira.

14. artikulua. Eskumen esparrua

1. Udal honi dagozkio kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko ahalmenak, borondatezko epean zein epe exekutiboan, zerga zehapenak ezartzea, bai eta zerga kudeaketaren eta zerga zehapenen bidez emandako egintzak berrikustea ere, turismo ostatuko establezimenduak Elciegon daudenean.

2. Zehazki, udalari dagozkio hobariak eta errekarguak ezartzea, zerga zorrak zehazteko likidazioak praktikatzea, kobrantza agiriak jaulkitzea, bidegabe egindako diru sarreren itzulketa espedienteak ebaztea, egintza horien aurka aurkezten diren errekurtsoak ebaztea, eta apartatu honetan jasotako gaiei buruz zergadunari laguntza eta informazioa emateko jarduketak egitea.

Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean araututako zerga arloko arau hausteen eta zehapenen araubidea aplikatuko da.

Zerga hau aplikatzeko egintzak eta jarduketak eta zerga zehapenak ezartzeko egintzak berrikusi egingo dira Toki Ogasunei buruzko Foru Arauaren testu bateginaren 14. artikuluan (testu hori irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemaileak onesten du) eta Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean xedatzen denari jarraikiz.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean sartzea eta ondorioak.

1. Kripango Udalaren osoko bilkurak 2026ko uztailaren 31n onetsi zuen ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2027ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, zerga ez da eskatuko zergadunek turismo ostatuetako establezimenduetan egiten dituzten egonaldiengatik, egonaldi horien erreserba 2026ko otsailaren 5a baino lehen formalizatu bada.

Bigarrena. Gaitzea.

Alkatetzari baimena ematen zaio ordenantza hau garatu eta aplikatzeko behar beste ebazpen eman ditzan, eta, bereziki, autolikidazio ereduak eta salbuespenak justifikatzeko erantzukizunpeko adierazpenak onar ditzan.

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.11.20 06:25:42 Z